

ELKARTEAK

Zer dira funtsezko elkarteak?

Negozio-eredu batek ahalbidetzen duen bazkide sarea da. Bertan, beste enpresa batzuekin arrazoi desberdinengatik aliantzak sor daitezke, batik bat, arriskuak murrizteko, interes berdinak dituzten beste enpresa batzuekin elkartzeko, helburu berdina lortzeko eta alde biei onurak ekartzeko.

Zer egingo dugu guk?

Enpresa bezala elkarte honekin aliantza egitea erabaki dugu:

OPEN ARMS



Open arms 2015eko irailean sortu zen, Aylan Kurdi txikitxoaren heriotza eta irudia mundu osoan azaldu eta gero. Elkarte hau Badalonako lau pertsonak sortu zuten, oraindik bertan jarduten dutenak.

Beraien helburua, inor gehiago migrazio krisi honetan ito ez dadin laguntza ematea da.

Elkarte honek aliantza egin gu gobernuz kanpoko beste erakunde batekin, Mediterranea Sea Wacht ekin, denon artean laguntza kordinatuz.

Bi laguntza mota eskaintzen dute Open Armsekoak, batetik, itsasokoak erreskatatzea eta lehen asistentzia higieniko sanitarioa ematea. Bestetik, jatorrian, ekintza desberdinak burutzen ditugu iparraldeko bide horrek suposa ditzazken arriskuak ezagutaraziz.

Proaktiva open armsek dituen baliabideetan, erakundearen diru kapitalaren %90 baino gehiago kaleko jendeak emandakoa da, bestea administrazioak emandako diru laguntzak dira, hau da gehien bereizten dituen beste erakundeetatik. Bestetik, bi enpresarioek emandako bi barku dituzte, Astral eta Open Arms barkuak.



XABI ARANBURU

Guk kasu honetan, Open arms elkartearekin alinantza edo harremanetan jartzea erabaki dugu. Gure irakasle Xabi Aranburu bertako kide bat da, beregatik Open Arms hobeto ezagutzeko aukera izan dugu, bere esperientzia entzun eta gero, ikusita egoera batzuk jorratu gabe zeudela, gure enpresa sortzea erabaki genuen. Xabi irakaslea da erreskate eta emergentzia arloan, baita nire denbora librean bolondres moduan Proactiva Open Armsen aritzen da. Lau urtez egon da joaten, guztira, bost aldiz joan da.

Bere papera elkarte honetan, itsas erreskatatzaiketa eta patroilanak egitea da, horrez gain, boluntario berrien formakuntzan eta misioen antolakuntzan laguntzen du.

Xabik esan bezala, bizipen hauek oso gogorak dira mentalki, baina era berean oso aberasgarriak pertsonalki.



“Gizabanako denek dugu mundutik askatasunez ibiltzeko eskubidea, eta batez ere beharra dagoenean guztion betebeharra da laguntza behar dutenei laguntza ematea, edozein momentutan geuri ere gerta dakigukelako gauza bera.”

ERANSKINA

Goitik atera dugun informazioa Xabiri egindako galdetegi honetatik atera dugu:

GALDETEGIA:

Biografia:

-Nor zara?

Nere izena Xabier Aranburu da, Donostian jaioa

-Zer egiten duzu?

Irakaslea naiz erreskate eta emergentzia arloan

-Non eta zein elkartetan egiten duzu boluntariotza?

Aspalditik ibili naiz bolondres moduan 1997an Gurutze Gorrian has nintzen eta horretaz gain azken lau urtetan oso sartuta nabil Proactiva Open Arms GKE-an Egear eta Mediterranear itsaso krisi migratorioan.

-Nola jakin zenuen elkarte hori zegoela? Nola jo zenuen haiekin?

Proactiva Open Arms oso gaztea den GKE-a da, 2015ean Turkia eta Grezia mugan Egear itsasoa zeharkatze saiakeran, uretan arazotan zeudenei laguntza emateko sortutako taldea da, egoera honetan Alain Kurdi txikitxoaren irudia ikusi eta gero sortutakoa hain zuzenean ere.

-Noiz hasi zinen elkarte horretan boluntario moduan? zergatik?

Lehen aldiz 2016ko urtarrilean joan nintzen beraiekin Greziara ordundik geratu gabe ahal izan dudanean Mediterraneo itsasora joan naiz laguntza ematera.

- Zein da zure papela elkarte horretan?

Itsas erreskatatzaile eta patroilanak egin ditut beti, horretaz gain bolondres berrien formakuntzan eta misioen antolakuntzan laguntzen dut.

-Zenbat bider joan zara boluntario moduan zure laguntza eskaintzera?

5 aldiz joan naiz

-Gaur egun jarraitzen duzu zure laguntza eskaintzen? (Bertara joaten, esku-eskukoa, automatizatua, elkarteen bidez..) Bai, azken urtean ez naiz joan aita izan berri naizelako eta misioak orain hilabeteko iraupena dutelako baina bertatik ematen dut laguntza prestakuntzan.

-Errealitate desberdinak bizi ondoren, zein aholku edo gomendio emango zenuke?

Gizabanako denek dugu mundutik askatasunez ibiltzeko eskubidea, eta batez ere beharra dagoenean guztion betebeharra da laguntza behar dutenei laguntza ematea, edozein momentutan geuri ere gerta dakigukelako gauza bera.

Bibliografia?

-Noiz, nola, zergatik eta zertarako sortu zen "Open Arms"?

2015eko irailean sortu zen Alain Kurdi txikitxoaren heriotza eta irudia mundu osoan azaldu eta gero.

Helburua: Inor gehiago migrazio krisi honetan ito ez dadin laguntza ematea.

-Nortzuk sortu zuten elkarte hori?

Badalonako lau soroak sortu zuten.

-Elkarte hori sortu zutenak oraindik jarraitzen dute bertan?

Bai denek.

-Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Beharra medio, hesi guztiak gaituz, itsasoa zeharkatzen saiatzen diren horiek ito ez ditezela laguntza ematea da helburu nagusia

-Zein da zuen logoa?



-Aliantzak ba al duzue? Norekin eta zelakoak dira aliantza horiek?

Helburu berdina partekatzen dugun beste GKE-rekin Mediterraneoan, Sea Watch .ekin aliantza bat sortu dute, denon artean laguntza koordinatuz.

-Zein motatako laguntza eskaintzen duzue Open Arms-en?

Bi laguntza mota: Itsasoa erreskatea eta lehen asistentzia higieniko sanitarioa.

Eta bestetik jatorrian, ekintza desberdinak burutzen ditugu iparraldeko bide honek suposa ditzaken arriskutsuak ezagutaraziz.

-Zer motatako baliabideak dituzue? Nolakoak eta nondik ekarritakoak?

Erankudearen diru kapitalaren %90 baino gehiago kaleko jendeak emandako dirua da, bestea administrazioak emandako diru laguntzak dira, hau gehienbat beste erakunde handietatik bereizten gaituena, bestetik, bi enpresarioek emandako bi barku ditugu, Astral eta Open Arms barkuak.

-Ba al duzue diru laguntzarik? Nondik lortzen duzue?

Esan bezala gehienbat jendeak emandako diruari esker egin dezakegu lana.

-Zelakoak izan dira zuen bizipenak, esperientziak..? (Kideekin, familiarekin..)

Oso gogorrak mentalki eta pertsonalki oso aberasgarriak, neure burua hobeto ezagutzen dut, etxean ondo hartu dute nere bolondres lana eta beti beraiek ahal dutena egin dute jarrai dezadan.